

## **Hautsi da katea**

(La cadena rota)

**Toti Martinez de Lezea**

Itzultzailea: Elena Touyarou

2004

Erein

Leku berezi bat egingo diot, noski, liburu honi ene apalategian. Hainbat arazoirengatik egingo ere. Lehenik eta behin, kontakizunaren leku eta denborazko inguruneagatik berarengatik: Lapurdi Frantziako Iraultzaren garaian. Garai gogorrak, zinez, eleberrian berean narratzaileak ohartarazten gaituenez: "Mundua zen bezalakoa zen: azkarrenek baizik bizirauten ez zuten toki eder bat". Frantziako Iraultzak ez zituen, gainera, gauzak aldatu bide, antza: "Tirania izenez aldatu zela, baina ez larruz", horra Lapurdiko herritar xume batek adierazia. Eta ingurune horretan garatuko zaigu istorioa, eleberri historiko tradizionalaren moldean emana. Hala, pasioz beteriko amodio-istorio bat kontatuko zaigu, Joantto Ithurbide seme bastartaren eta Mari Harotsenneren artekoa. Pasioz eta emozioz beteriko istorio gorabeheratsua, atentzioa bukaeraraino erne mantenez diguna. Eleberri klasikoetako heroien erakarmen berbera sorrarazten du, nik uste, Joantto Ithurbide pertsonaiak: oso pertsonaia lortua, kontrako egoera guztien aurka borrokatu ondotik bere saria eskuratuko duena, ondo kostata eskuratuko, gainera.

Javier Rojori irakurri diot abentura erromantikotik haratagoko zerbait bilatzen duenak zerbait faltan sumatuko duela eleberri honetan. Baliteke. Abentura erromantikoa eta eleberri klasikoa dugu aurrean, bai, maisuki harilkatu eta garatua, ordea, irakurleon gozagarri.

Gauza jakina da Totik egundoko arrakasta lortu duela orain arte gaztelaniaz atera dituen eleberriekin. Euskaraz emana datorkigu oraingoa. Ez nolana hiko euskaraz, gainera. Ulergarritasunaren mamua haizatu duenik ere izan da. Esan dezagun, horren gainean, E. Touyarou-ren itzulpena ona ez ezik, ederra dela. Bete-betean asmatu da, nik uste, eleberri hau (ez ahantzi Baiona, Sara, Donibane, Bera... ditugula eszenatoki) lapurteraren moldean ematerakoan. Tarteka hiztegi begiratzea beste lanik ez da hartu behar. Eta merezi du, merezi duenez!

Mikel Garmendia.